



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

ARKITEKTURA  
GOI ESKOLA  
TEKNIKOA  
ESCUELA  
TÉCNICA SUPERIOR  
DE ARQUITECTURA

# ARKITEKTURA GOI ESKOLA TEKNIKOA

**Arkitekturaren Oinarriak**

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)

# Arkitektura Goi Eskola Teknikoa



Arkitekturaren Oinarriak\_6. or.

# Garatu zure diseinatzeko pasioa, azken teknologien bidez

Arkitektura Goi Eskola Teknikoa (AGET) Luis Peña Ganchegiren ekimenez sortu zen, 1977an. Orduz geroztik, lan merkatuan aritzeko prest egongo diren profesionalak prestatzeko lanean dihardu.

Horretarako, eskolak honako hauek bultzatzen ditu:

- Hitzaldiak, erakusketak, jardunaldiak eta mahai inguruak, guztiak ere irakasgaien irakaskuntzaren inguruan antolatuta
- Nazioartekotzea, truke programen bidez
- Arkitektura ikasketen praktikak, aholkularitza enpresetan, ingeniarietan, promotoretan, eraikuntza enpresetan eta administrazioaren organoetan

Graduak IMI homologazioa du, 2016. urteaz geroztik. Horren bidez, Europako edozein herrialdean egin daiteke lan, titulua baliozkotzeko beharrik izan gabe.



## ESKOLA ZENBAKITAN

1

graduako  
titulu

+160

truke ikasle  
incoming

+90

truke ikasle  
outgoing

4

master ofizial  
(Arkitekto lanbide  
arauturako gaitzen duen  
Arkitektura Unibertsitate  
Masterra barne)

+300

enpresa, praktikak  
kudeatzeko

4

berezko titulu

1

doktorego  
programa

+35

ikasturtean  
antolatutako kultura  
jarduerak

Arkitektura Goi Eskola Teknikoa  
Oñati plaza, 2  
20018 Donostia-San Sebastián

943 018 408 / 943 018 409  
[aget.idazkaritza@ehu.es](mailto:aget.idazkaritza@ehu.es)  
[www.ehu.es/eu/web/arkitektura-eskola](http://www.ehu.es/eu/web/arkitektura-eskola)

 [@arkitektura.upv.ehu](https://www.facebook.com/arkitektura.upv.ehu)

 [@arkitektura\\_ehu](https://www.instagram.com/arkitektura_ehu)

 [@upvehu](https://twitter.com/upvehu)

 [UPV/EHU](https://www.linkedin.com/company/upv/ehu)

 [UPV/EHU](https://www.youtube.com/channel/UC...)

 [UPV/EHU](https://vimeo.com/upv/ehu)

## GURE AZPIEGITURAK

### Irakaskuntzarako guneak:

- Irakaskuntza teorikorako gelak
- Esku hutsez marrazteko gela
- Irakaskuntza praktikorako tailerrak
- Master gelak
- Maketak eta prototipoak diseinatzeko laborategiak

### Ikasleek beren kabuz erabiltzeko guneak:

- Fablab: 3D fabrikatzeko makinaria tailer bat
- Ikaslegela: ikasleek autokudeatutako areto bat, jantokia, atsedenerako eta talde lanerako guneak dituen.

### Beste gune batzuk:

- Paraninfoa edo ekitaldi aretoa.
- Erakusketa espazioak
- Agiritegia
- Unibertsitate-enpresa gela
- Topaketa eremuak
- Espazioak aire zabalean: terraza eta lorategia
- Materialen liburutegia



**Bizitzeari erantzuten diogu, ingurumena, gizartea edo hiriaren eraikuntza bezalako erronka handiei aurre eginez**




## MUGIKORTASUN PROGRAMAK

**SICUE**  
Espainiako unibertsitateak

**ERASMUS +**  
Europako unibertsitateak

**Latinoamerika eta beste norako batzuk**

- 30 herrialde, atzerriko egonaldia egiteko
- 100 unibertsitate, kontinente guztietakoak



[Hemen](#) aurkituko duzu ikastegi honetako mugikortasun-programen informazio guztia.

## IRAKASKUNTZA ELEANIZTUNA

- Irakasgai guztiak euskaraz eta gaztelaniaz egin ditzakezu, eta graduaren kreditu erdia baino gehiago, berriz, ingelesez
- Irakasgai batzuk euskaraz, beste batzuk gaztelaniaz eta beste batzuk ingelesez egin ditzakezu
- Profesional gonbidatuak, hitzaldi eta mintegietara


## UNIBERTSITATEKO PRAKTIKAK

- Ikasketak eta lana uztartzen ditu, arkitekturaren sektorean
- Borondatezko praktiken programak arlo profesionalarekin harremanetan jartzea ahalbidetzen du, graduaren 150 kreditu gainditu ondoren
- Eskolak lankidetzan dihardu ikasturte osoan ikasleentzako praktikak eskaintzen dituzten 300 erakunde baino gehiagorekin

## GRADU AMAIERAKO LANA

Eskolak UPV/EHUren GAZTENPATIA Garapenerako Lankidetzaren Programan parte hartzen du, non GRALa egiteko aukera izango duzun.

## NON EMATEN DIRA GURE GRADUAK?



# Bizi Gipuzkoako Campusa!



+10.000 ikasle



9 ikastegi



1 unibertsitate egoitza

Ostatu zerbitzua:  
ostatua aurkitzen  
lagunduko dizugu



3 biblioteka



Kultura, musika eta  
arte jarduerak



1 kiroldegi  
Itunpeko kirol  
zentroak



Ikasi hizkuntzak  
Hizkuntza  
egiaztagiriak



Enplegu Gunea



## ARKITEKTURAREN OINARRIETAKO GRADUA

### Jakintza adarra: **Ingeniaritza eta Arkitektura**

Arkitekturak ahalmena dauka hiritarren eguneroko bizitza aldatzeko, hobetzeko eta errazteko, haien bizipen, ohitura eta sentipenetan eragina duelako. Horrela, bada, arkitektoen helburua da, besteak beste, lurraldearen, espazio hutsen, etxebizitzaren, lantokien, eta aisiarako eta mugikortasunerako lekuen bizigarritasuna hobetzea. Erronka horiei aurre egiteko gogoia baduzu, Arkitekturaren Oinarrietako Gradua hainbat aukera irekiko dizkizu zure ingurunean esku hartzeko eta ingurune horren diseinuan eta eraikuntzan parte hartzeko.

Gure inguruan Arkitekturaren Oinarrietako Gradua eskaintzen duen unibertsitate publiko bakarra UPV/EHU da. Gainera, honako hiru aipamen edo ibilbideak izango dituzu espezializatzeko: Berrikuntza eta Ikerketa Sortzaileak; Ondarea, Birgaitzea eta Zaintza; eta Hirigintza, Paisaia eta Lurraldea.

Gradua amaitzean, Arkitektura Unibertsitate Masterra ere egin ahal izango duzu gure eskolan, arkitekto lanbide arauturako gaitzen duena. Gradua eta masterrak onarpen ofiziala dute Europar Batasuneko herrialdeetan, homologatu beharrik gabe.

Gainera, titulazio bikoitza lortzeko aukera dago erakunde hauekin: Bordeleko Arkitekturako eta Paisaiako Goi Eskola Nazionala eta Montpellier-eko Arkitekturako Goi Eskola Nazionala.



[Hemen](#) aurkituko duzu gradu honi buruzko informazio zehatzagoa.

---

### Titulazio honek gaitasuna emango dizu...

Pertsonen eta eraikinen arteko loturak eta eraikinen eta horien inguruaren artekoak ulertzeko; eraikinen eta haien artean dauden espazioak erlazionatzeko beharra ulertzeko, gizakiaren premien eta eskalaren arabera; arte ederrek ikuskera arkitektonikoaren kalitatean eragin dezakeen faktore gisa duten eginkizuna ezagutzeko; arkitekturaren historia eta teoriak aztertzeko; eta plangintza prozesuan aplikatutako teknikak eta hirigintza ezagutzeko.

### Irteera profesionalak:

Arkitektura estudioetan, eraikuntza enpresetan, funtzio publikoan eta hezkuntzan hurrengo gaien inguruan lan egin dutenak:

- Administrazio publikoa: udal arkitektoa, ondarea, katastroa eta eraikuntza
- Diseinu industriala, moda
- Eraikinen eta urbanizazio proiektuen garapena
- Eraikinen zaharberritzea eta birgaitzea
- Eraikuntza eta urbanizazio lanen zuzendaritza
- Gizarte eta ingurumen eraginaren ebaluazioa eta kontrola
- Higiezin eta ondarearen kudeaketa
- Irakaskuntza erdi mailako eta unibertsitate mailako ikasketetan
- Lurralde plangintza eta antolakuntza, paisajismoa
- Segurtasuna eta laneko arriskuen prebentzioa

---

**Pertsona kritikoa eta sortzailea bazara, era askotako interesak (humanistikoak, artistikoak zein teknikoak) uztartzeko gai bazara eta trebea bazara ideiak egituratzen eta horiek modu grafikoan, ahoz zein idatziz, adierazten, Arkitekturaren Oinarrietako Gradua da zure lekua.**

---

## IKASKETA PLANA

---

**LEHENENGO MAILA** 60 kreditu (adarreko oinarrizko 36 kreditu + nahitaezko 24 kreditu)

**1. lauhilekoa**

- Arkitektura Irudigintza I
- Arkitekturaren Historia
- Eraikuntzaren Analisia I
- Geometria I
- Inguru Fisikoari buruzko Kontzeptuak
- Oinarri Matematikoak I: Aljebra eta Geometria Aplikatuak
- Proiektuak I: Diseinua eta Adierazpena

**2. lauhilekoa**

- Arkitektura Irudigintza II
- Arkitekturarako Sarrera
- Eraikuntzaren Analisia II
- Geometria II
- Inguru Fisikoari buruzko Kontzeptuak
- Oinarri Matematikoak I: Aljebra eta Geometria Aplikatuak
- Proiektuak II: Etxea I

---

**BIGARREN MAILA** 60 kreditu (adarreko oinarrizko 24 kreditu + nahitaezko 36 kreditu)

**1. lauhilekoa**

- Arkitektura Irudigintza III
- Eraikuntzaren Analisia III
- Hirigintza I. Inguru Fisikoa
- Konposizioa I
- Proiektuak III: Etxea II
- Egonkortasuna eta Isostatikotasuna (urtekoa)
- Oinarri Matematikoak II: Kalkulu Aplikatua (urtekoa)

**2. lauhilekoa**

- Arkitektura Irudigintza IV
- Artearen eta Arkitekturaren Teoria eta Historia I
- Eraikuntzaren Analisia IV
- Hirigintza II. Hiri Izatea
- Proiektuak IV: Egoitza Guneak I
- Egonkortasuna eta Isostatikotasuna (urtekoa)
- Oinarri Matematikoak II: Kalkulu Aplikatua (urtekoa)

---

**HIRUGARREN MAILA** 60 kreditu (nahitaezko irakasgaiak)

**1. lauhilekoa**

- Artearen eta Arkitekturaren Teoria eta Historia II
- Egiturak I
- Enpresa I
- Eraikuntza I
- Hirigintza III. Hirigintza Legedia
- Proiektuak V: Egoitza Guneak II
- Zerbitzuak I

**2. lauhilekoa**

- Artearen eta Arkitekturaren Teoria eta Historia III
- Egiturak II
- Enpresa II
- Eraikuntza II
- Hirigintza IV. Hirigintza Proiektuetarako eta Paisaiarako Sarrera
- Proiektuak VI: Egoitza Guneak III
- Zerbitzuak II

---

**LAUGARREN MAILA** 60 kreditu (nahitaezko irakasgaiak)

**1. lauhilekoa**

- Egiturak III
- Eraikuntza III
- Eraikuntza Prozesua I
- Girotze Sistemak I
- Hirigintza V. Plangintzarako Sarrera: Eskala Xehatua eta Zehaztua
- Konposizioa II
- Proiektuak VII: Eremu Publikoak I

**2. lauhilekoa**

- Egiturak IV
- Eraikuntza IV
- Eraikuntza Prozesua II
- Girotze Sistemak II
- Hirigintza VI. Plangintzarako Sarrera: Egituratze Eskala
- Konposizioa III
- Proiektuak VIII: Eremu Publikoak II

---

**BOSGARREN MAILA** 60 kreditu (nahitaezko 21 kreditu + hautazko 30 kreditu + Gradu Amaierako Laneko 9 kreditu)

**1. lauhilekoa**

- Hiri Atondura
- Hirigintza VII. Lurralde Antolakuntza eta Ingurugiroaren Babesa I
- Proiektuak IX: Eremu Publikoak III

**2. lauhilekoa**

- Hiri Zerbitzuak
- Hirigintza VIII. Plangintza Praktiak

**Hautazkoak**

- Arkitektura Parametrikoa eta Fabrikatze Digitala (1A)
- Eraikitzeko Era Berriak (1A)
- Forma Konplexuen Tailerra (1A)
- Egitura Dimentsioen Historia (2A)
- Eraikuntzaren Historia (2A)
- Ondasunari buruzko Aurretiko Analsiak. Ondarearen Kontserbazioa: Lan Metodologia (2A)
- Hiri Ekosistemak eta Adierazpen Erak (3A)
- Ingurunearen Antolakuntza, Paisaia eta Lurralde Ekintza (3A)
- Lurraldea eta Hiri XXI. Mendean (3A)
- Euskararen Arauak eta Erabilerak

**Hautazkoak**

- Berrikuntzaren Kudeaketa (1A)
- Eraikuntza Mikroklimatikoa (1A)
- Proiektu Saiakeretarako Laborategia (1A)
- Arkitektura Diseinua eta Birgaitzea (2A)
- Esku-hartzeko Teknikak (2A)
- Ondarearen Energia Optimizazioa (2A)
- Gune Irekien Antolakuntza eta Hiri Ekipamenduak (3A)
- Hiri Plangintza Estrategikoa (3A)
- Paisaiaren Arkitektura (3A)
- Komunikazioa Euskaraz: Arkitektura

**GRADU AMAIERAKO LANA**

---

**AIPAMENAK**

- Berrikuntza eta Ikerketa Sortzaileak (1A)
- Ondarea, Birgaitzea eta Zaintza (2A)
- Hirigintza, Paisaia eta Lurraldea (3A)



## UPV/EHUren GRADUONDOKOEN ESKAINZA

Zure gradu-ikasketak amaitu ondoren, zure prestakuntza osatu ahal izango duzu graduondoko batekin. UPV/EHUK graduondoko 150 programa baino gehiago eskaintzen ditu zure etorkizun profesionala garatu nahi duzun alorrean espezializatu zaitez.



Gure unibertsitateko masterrak eta berezko tituluak hemen kontsulta ditzakezu:  
[www.ehu.eus/eu/web/estudiosdeposgrado-graduondokoikasketak](http://www.ehu.eus/eu/web/estudiosdeposgrado-graduondokoikasketak)

Eskerrik asko Euskal Herriko Unibertsitatea aukeratzeagatik. Itxaroten dizugu.

Liburuxka hau informazioa emateko baino ez da.  
Azken eguneraketa: 2022ko abendua.